

# "PRINCIPE DE VIANA"

SUPLEMENTO MENSUAL DE LA REVISTA, DESTINADO AL FOMENTO DEL VASCUENCE

DIPUTACION FORAL DE NAVARRA

Franqueo concertado  
N.º clasificador 34/60

DELEGADO DIPUTADO: M. J. URMENETA

Bosgarren Urtea — Pamplona - Junio, 1970, Ekaina — Iruña — 52. gn Zembakia

DIRECTOR: J. E. URANGA



## ARROTZEKIN ERE BAI

Era guzietako iendeak etorriko zaizkigu gure errietara gauden egunean. Nik nerea bezala zuek zeraten ere alde guzietakoak ikusten dituzute noiznai.

Iende aetatik aunitz bakantzak, atsegiñez atsegin, ahal bezein ongi betetzera datorz.

Bertze aunitz berriz, bakantzetan ere, dezaketen on guziekin beren iakitetea aberastera agertzen zaizkigu, adimen ta oroimen argiz, gure errietan izen ditezken gauz onetan ohartzuz eta denak kontuan artuz.

Alderdi on aunitz ager dezake erri bakoitzak: alderdi txar bat edo bertze izan dezaken bezala. Alderdi txarra zuzentzera saiatu behar. Bai ta onak zaintzera ta, baldin baditeke, obetzera ere, lan ontan gu iñoiz aspertu gabe, begi erne ta argiekin gure errietako alderdi on oien ikustera dartzoten iendeek, berek bezenbat seurik geiago ez bada maite ditugula ikus dezaten.



## EUSKERAZKO HITZAK

Hitzik gabe ezin laike mintza eta izkuntza bakoitzak ba ditu bere hitzak. Baina, euskerak ba du gainera beste zerbait: hitz hoiek zer esan nahi duten jakin nahia. Gure herria bezain zaharra da, nik uste, euskaldunok dugun joera hau. **Zein da gure hitz bakoitzaren iturria? Zer esan nahi du?**, Zenbat itzulpen eta esames mota ez du sortu herrian hitz zaharren jokuak! Eta egia ta fedia bezela sinesten dira askotan.

Erdaldunak ez dira berenekin hainbeste kezkatzen. Jakintsuen buru-hauste bat da bakarrik. Baina erdaldun hoiek berak euskaldun hitz bat entzun orduko zer esan nahi duen galdetzen digute. Aitor izenak zer esan nahi zuen galdetu zioten lehengoan guraso bati nere aurrean. Mututurik gelditu zen gizona; ez zekien zer erantzun. Bere izenak zer esan nahi zuen ba ote zekien? Eta Robertok, eta Sinfrosak? Ez; gurea jakin nahi zuen.

Nik ez dakit zer den, baino euskerak ba du zerbait tentagarri etxe-koak eta kanpokoak hitzen iturrira begira ezartzen dituen. Aitona zaharri bere gazte denborako berri galdetzea bezela ote? Hain da iturri zaharra euskerarena!

### ERDAL HITZAK

Ba ditugu hitz arrotzak ere, baina ez ere hitz berri izkuntza guzietan

sartuak. Erdaldun batek hartuko ditu eta laister jabetu. Bere ezur eta mami egiten du, berdin grekatik heldu ba zaiola errusotik. Ez esan urte batzuen buruan berea ez denik.

Euskaldunaren aurrean jakintsu eta izkuntza aberats baten jabe agertzeko, hori bera euskeraz nola esaten den galdetuko du. Guk ba dugu beste askok ez dutena, geuron hitzez zernahi adierazteko erretasuna; telefonoarendako **urru-tizkiña** esaten ba diogu, edo kotearendako **beribilla**, erdalduna ixildu egiten da. Eskubide osoz, telefonua edo automobila esaten ba diogu berriz, joan da gurea; euskerak ez duela ezertako balio esango digu, hitz guziak erderatik —edo gatzeleratik—, hartzen dituela. Bere baitarik heldu zaizkiola uste du erdaldunak.

Zer dago bitasun horren barnean?

### BESTE MUNDU BAT

Euskera izkuntza zaharra dela edozein hurrek ba daki. Ez da bera bezain zaharrik Europa aldean. Garai bateko gizonaren bizia eta oraikoa ez dira berdinak; orduko lanbide ta jakintza ere oso ezberdinak. Berdin izkuntza.


Orduko gizonaren etorkizuna aberak eta lurra; beren iztegia esku

tarteko gauzera. Gauza bakoitzari bere izena ematean zer zen adierazten zuten, gutxiz gora behera. Izen eta izan, berdintsuak, ziren; elkarrizketa bezela. **Izena duten guziak ba direla**, entzun diegu gure zaharri. Sorginak ere bai; zertako dute bestela izena?

Antziñako gizonak ikusten eta ikutzen diren gauzetan zuen asmo osoa. Zer-gabeko (abstrakto) hitzak eta asmakizun hutsak ez zitzaizkion buruan sartzen; ibaiko ura lor-gatez lotzea bezela zen arentzat.

Esku tarteko mundu hortan izenak asko esan nahi du. Hortik dator orai euskerari egiten dakion galdeera, zer esan nahi duen hitz bakoitzak. Eta munduko izkuntza guzietan sartua den hitz berri bat hartzeko eskubiderik ez ba ginu bezela, euskeraz nola esaten den galdetzen digute. **Beste mundu baten orma harriak dira euskerazko hitzak jakintsuen belarritan. Eta berek ez duten zerbaiten susmoa bezela zer esan nahi duten galdetzen diguten hoientzat.**

J. M. SATRUSTEGI



Se autoriza la copia para la investigación.  
© GOBIERNO DE NAVARRA

—oOo—

Kristauak gurela diogunez geroz, gure alderdi onetan lehena ta obere kristau onak izatean daukegu. Ez dezagun on au gorde edo zokoratu, kanpotik datorzkiegunek «zer erranen ote duten» orri bildurrez: etzaiote ta arrotz arin xamarrei gure sinismenez axola aundirik: bai ordea gure gauz onetan ohartzera eldu zaizkigune. Ta, nola nai dela, ez gaude arrotzen mendeerako, gure laun ta labearen zerbitzurako baizik.

—oOo—

Euskaldunak gurela diogunez geroz, ez gaitezen arrotzen artean

garen bezalakoak izateaz lotsatu. Kanpotar geienek gure izkuntzari duen balio aundi ori ukatzea, edo bertan ez ohartzea baditeke: ez gara, bada, geienok, alde batera ta bertze gabilzenez, ango ta orko izkuntzaren aberatstasunean ohartzun (ez ta garenarenean ere zoritarrez): au baño atsegiñago zaizkigu munduak gure begi, belarri ta biotzarentzat ain poliki bide-ratzen dazkigun xoramenak.

Baña, ziur egon: arrotz oien artean, gure izkuntzez xoratuko direnak ere agertuko zaizkigu, zuek eta nik uste baño geiago behar bada. Ez, bada, alketu eskuaraz: ez lotsatu zure amaren agotik ikasitako mintzairaz.

—oOo—

Errietako oitura zahar onak ere billatzen dituzte gauz onen atzetik dabilzen kanpotar iakintsuek. Ez ginuzke oitura on oiek galtzera utzi behar.

Era berriek artzea, familien eta errien onerako direnean, on baño oiea da. Oitura zaharrik, len-oraita gero ere denentzat on utse dakartenak, irau bezate, irau, guretzat protugarrri ta arrotzentzat arrigarrri, beti beti gutartean.

Beti ona dakarren oitura, beti gazte zaigu, aspaldikoa izenik ere, aspaldiko zuaitz zitu on emalearen antzeko.

Ta, gure errietan orrelako aspaldiko oitura gazte ta zitu on emale, arrotzen begientzat ager dezakegu, geren bizimoduaren gerok NOR izenezgeroz.

Etor bitez zorionean arrotz aunitz uda aldean gutartera: ta, ikas bezate, zorionean ere, gauz on aunitz gugandik, emengo erriek, eta gu, beren begi-biotzentzat atsegin izanez.



IBARRONDO

# EUSKALERRIKO LEIOA

## EUSKALERRIKO MENDIGOIZALE URTEKO BILTZARRA AIZKORRIN

Aurtengo Maiatzeko iru lehenengo egunak Gipuzkoako Aizkorri mendiko azpiko zelai zabal eder batean Euskalerriko Mendizaleen Elkartearen artu emanak izan dira. Zelai honek OLTZA du izena eta toki zoragarria da. Oñatiko Aloñamendi Elkarteak dena antolatzen zuen. Eguraldia oso txarra egon zan, otz ta elurra asieran baña azkeneko egunean eguraldi ederra egin zuen.

Euskalerriko lau lurraldeetatik etorri ziran Oltza'ra, Naparra, Gipuzkoa, Bizkai eta Arabatik Aitzkorriaraino abiatu ziren jendetza aundia biltzen.

Azken eguna igandea zen Maiatzeko irugarrena alegia. Goizeko amabietan euskeraz emandako Meza izan zan, Ondoren medalla banaketa. Azkenean lau lizar meza emandako lekuan landatu berri zituzten lau euskal lurraldeen anaitasuna oroitu ta agertzeko.

## EUSKERAREN BATASUNA DELA-TA

Euskaltzaindiak euskeraren batasuna nahi du egin, edo nahi beharko luke egin beintzat euskera bizi dedin. Batasuna honen borondate onak ikusten dira Euskalerriko guzian, ipar aldetik egoalderano, eta sortaldetik sartalderano, baño badira ere beste borondatekin ain onak ez direnak, eta gutxi bakarrak izaten badira ere, borondate biurriak agertzen dizkigute, bere etxeei bakarrak begiraturik eta ez norberaren etxe guziei, elkar ikusirik.

Zenbat idazlan, lerroak, itzak euskeraren batasunari buruz ez dira idatzi, eta esan.

Badakizu zer esan duen izkuntzalari iakintsu den Luis Mitxelena jaunak? Hara hemen esan duena: «Lege bat behar dugu geure buruen gainetik. Ez, ez da hori jauntxokeria edo maisukeria. Eta ala biltz ere, izkuntza hori il edo biziko dela iakitea aski behar litzake lege bakar hori nahi dezagun».

Nahikoa ditugu itz hauek euskeraren batasunaren gauzak behar diran moduan, eta ez neri edo zuri komeni zaizkizun eran, egiteko.

## «ANAITASUNA». BIZKAIKO EUSKAL ERREBISTAK SUSKRITORE GEIAGO BEHAR DU

«Anaitasuna» izeneko euskal Errebistaren zuzendaritza arpedunak billa dabil. Hemen aurrean bi zabaltzeko orriak dauzkat laguntasun eske.

Orri batek diona: Zu, Euskalduna. Irakurtzen duzu euskeraz? Errebista bat dago, euskera errezean, edozeinek ulertutzeko modukoa. Urtean 100 peseta dira, ta amabostero urtetzen da. Suskribitu zaitz ANAITASUNA'ra. Bete egizu horaintxe bertan zure suskriptionea ta bidaldu hona: ANAITASUNA - Apartado 17 - GALDIAKANO.

Besteak: Beste arpedun berri bat. Euskera ez da ilgo. Baina hori ez da gure auzia. Gure problema euskera zabaltzea, indartzea eta goi-maila batera jasotzea da. Horretarako ezdugu inoren laguntzarik itxaron behar, sekula etzaigu geugandik izan ezik etorriko-ta. Euskera indartzeko, bide bat dago; ZURE LAGUNTASUNA!!!

Errebista hau amabostean behin ateratzen da, urtean, beraz, ogeita sei aldiz argitaratzen da eta gure eskuetara eldu. Urtean ogeitasei numeru, eta dena ehun pesetan gauza merkea da, alajaina. Euskal naparra zure eskua bota Bizkaiko aldzikari iakingarri honi eta suskribitu zaitz, 100 pesetako balio du urteko.

## EUSKAL AKADEMIAREN ILLABETEKO BILTZAR BEREZIAK

Euskaltzaindiak azken biltzarrean bi billera bereziak egitea ontzat artu zituen. Bata Luzaideko errian, Satrustegi apez jaunaren eskabide bat entzuz, bertako agintari eta herritarrek bere errikide zen Juan Etxamendi Larralde «Bordel» bertsolari zenari emango dioten egunean berean egiteko.

Beste biltzarra Zuberoko hiri buruan, Maulengo errian, Salaberri omen aldia egingo dioten egunean. Bi biltzar hauek Udako illabete edo Udazkenekoetan izango dira noski.

## MIKEL OLANO APEZPIKU EUSKALDUNA IL BERRI DA

Gipuzkoako Alzoko errian jaio zan 1891 urteko Abuztuaren 29 egunean, Iruñean apezta eta 1918 urtean misioetara joan zan, Guam lurraldera, hau da euskaldun kaputxinoek izaten zuten misioetara. 1935 urtean apezpiku izendatu zuten Guam'en misioetara buru izanik. Azken gerrate unibersalean japonarrek Guam ugarte menderatu zuten eta Mikel Olano Apezpikuak erbesteratu behar izan zuen, Filipinas'etara joanik. Azken amar urte hauetan Donostiko Aita Kaputxinoen Prailategian bizi izan da. Horain badu illabete bat Guam ugartera berriz ere joan zela eta han eriotzak arapatu du berrogei ta bi urte zituelarik.

Goian bego Apezpiku euskaldun jatorra.

## «HACENDISTAS NAVARROS DE INDIAS» IZENKO LIBURU BERRIA

Alfontxo Otazu gaztea horain Bilbon bizi bada ere Donostiko sema dugu. Otazu gazte honek berebiziko lana egin du eta bere doai aundiko lanaldia liburu batean bildu du. Hona hemen liburu honen izenburua: HACENDISTAS NAVARROS DE INDIAS».

Liburu hau oso interesgarria da. Erdiaroko paper zaharretatik artutako da bere gaia, espezialki Nafarroa ta Madrilgo artxiboe-tatik zehar ibili behar izan du bere liburu osatzeko, baña baita ikusmiratu, azterkatu eta miatu Heredia Espinolako Kondearen eta Baztango Dorre Etxeko liburutegiak ere.


Otazu jaunak Iruñeko Unibersidadearen Lege Ikasgoak ikasten ditu, laugarren urtean dago. Bere ikasgaririk atsegina historia du, Euskalerrikoak batez ere.

Liburu honen itzaurrea Caro Baroja iakintsuak idatzi du eta Alfontxo Otazu gaztearen lagun tamaisu izanda. Caro Baroja jaunak «La Hora Navarra del Siglo XVIII» izeneko liburu igaz argitaratu zuen gai berberak ikutuz.

Zorionak, emeretzko urteko Alfontxo Otazu donostiar gazteari, segi dedilla bere bidean Euskalerrian historia aztertuz.

## «EUSKAL IDAZLE» ELKARTEAREN BILLERA EIBARREN

Maiatzaren lehen egunean iru geitsu euskal izkribitzaile bildu ziran Eibarren «Euskal idazleen» Elkartasunaren urratsak elkar ezagutzeko. Urrats horietan inportanten, beharrezkoen eta gauregun-tasunik aundiena Euskeraren batasunari dagokiona da. Gai honi buruz Torrealdai sekretario jaunak billeraren elkarriketa iriki zuen, eta ondoren Gabriel Aresti, Aita Altuna, eta Xabier Kintana ari ziran euskararen batasuna goraltzen, eta lan honi doazkion oztopo, problema, eta xehetasunak azterkatuz. Jende geiena gaztea zan, Euskeraren batasuna euskal gazteen eskuetan izan omen da. Uste dut, egia bada, toki onean dagonik.



## BESTE EUSKAL MEZA BAT IRUÑAN

Nafarroko Uriburu ederrean euskaldun eta euskaltzale aunitz bizi dira, bestek uste duten baño oso asko geiago, zorionez. Millaka euskaldun hemen bertan, Iruñan, ibiltzen dira, batzuk emen sortuak, beste batzuk Nafarroko euskal errietatik etorriak, eta besteak Giputze eta Bizkaitik honeratuak Erdal meza badira, alafede, Iruñan, baño euskaldunentzat bat bakarra, Iruñeko Euskal Erriaren Adiskideak elkargoari eskerrak. Horain beste euskal Meza bat ematen asia da Iruñan.

Jesusen Lagundiko Elizan, larunbata eta festa bezpera guzietan, arratsaldeko zazpitan ematen da.

—oOo—

Bigarren euskal Meza hau Aita Jesuiteek antolatu dute, eta haueri eskerrak euskaldunee ere jaibezperetan gure euskal Meza izango dugu.

IKUSLE



# Alcohólicos en Vasconia

Guipúzcoa y Navarra a la cabeza de una estadística: son campeones por el momento. Pero no en el campo deportivo o en el cultural ni en las obras benéficas o en las vocaciones. Esta vez la estadística es macabra: se trata de personas que han ingresado en centros sanitarios a consecuencia del alcoholismo. No ignoramos que no todos los alcohólicos ingresan en centros sanitarios, así como la realidad de que unas provincias poseen más centros sanitarios en los que ingresar.

Todo ello es verdad. Mas, aun admitidas las reservas convenientes, las estadísticas son espeluznantes. Los datos facilitados por el Gabinete de Estudios de la Dirección General de Sanidad y que publica la revista «Salud Mental», según información de la E.P., dan a la población española un total aproximado de 2.141.600 personas alcohólicas. Quisiéramos robar a la cifra los dos últimos ceros, como inexistentes, pero desgraciadamente la resta no depende del

periodista sino de los propios alcohólicos.

Por cada 100.000 habitantes ingresaron en Guipúzcoa 37,3 alcohólicos; 24 por cien mil en Navarra; 16 en Barcelona; 9,7 en Tarragona; 8,5 en Zaragoza y 8,3 en Soria: son las seis provincias vencedoras en la clasificación.

Es lastimosa la institución del «chiquiteo» que goza de tanta popularidad entre nosotros. Porque no se trata de la sabia y provechosa degustación del alcohol, sino de una libación desordenada, incontrolada, desquiciada. Las «estaciones» de este Via-cruces que va minando la fortaleza de nuestro pueblo se consideran inocentes, intrascendentes, hasta divertidas. No hay más que asomarse, en cualquiera de nuestros pueblos, al itinerario del alcohol, entre las doce del mediodía y las tres de la tarde, y las cinco a nueve de la noche, los festivos, para percibirse de sus hechos: están jugando infantilmente con armas mortíferas sin procurar medir su alcance.

Unas veces por vencer el aburrimiento de quien desdeña el libro o la música; otras, por la mera rutina que, en definitiva, suele ser el motor del pueblo; otras, por el deseo de imitación en la supuesta hombría de quien sabe encajar vaso tras vaso; no pocas veces, por la fatal convicción de que el alcohol ahoga las penas. El hecho está ahí patente, hasta exhibido con desfachatez.

La prensa ha subrayado los efectos del alcoholismo, en la salud del protagonista y de su pueblo; en las consecuencias nefastas para la convivencia en la familia de miembros embrutecidos por la acción etílica; en los amargos frutos para la economía de quien consume un buen porcentaje de sus ingresos en el veneno; en el apocado ambiente cultural de quienes dependen del fuerte atractivo del alcohol.

Sin embargo, continúa la fatídica trayectoria. De vez en cuando, se publican unas estadísticas oficiales respecto al alcoholismo; siempre alguna o algunas de las provincias vascas en cabeza. No nos curamos de nuestra vergonzosa enfermedad social porque no pretendemos ni medir nuestra miseria ni buscar medios para atajarla.

Mientras tanto florecen nuestros manicomios. Y florecen los que deambulan entre nosotros porque no existen puestos suficientes en nuestras casas de salud. Y florecen los números que delatan la existencia de hondas tragedias en las familias, tragedias que frecuentemente son la comidilla de la vecindad.

Una vez más, Guipúzcoa y Navarra en la lista negra. ¡Ojalá que el descubrimiento nos obligara a tomar medidas preventivas para el porvenir!

(ARANZAZU aldzikaririk artua).



# XENPELAR ILL DA EUN URTERA...

(y II)

Guillermo Albizuk jarriak

- 19  
Zirikatuzten panparroi xamar  
norbaitek bazion ekiñ,  
erantzuna azkar jaulkiko zuan  
arrazoi sendoarekiñ.  
Agortzen ez zan bertso ixuria  
oparo zeukan berekiñ.  
Garai artako on ustekoak  
umill zebiltzan arekiñ.
- 20  
Pesta alaigarri asitzen bazan  
jende taldean aurrean,  
parrez aguro jarriko zitun  
danak lertu bearrean.  
Bazirudien beti eguzkia  
zegola bere urrean.  
Mufiñ eman bear genduke oifiaz  
zanpatu zuen lurrean.
- 21  
Serio jartzen zan garaiean  
ain! zuen mingaiñ zorrotza,  
negar malkotan urtuko zuan  
arritzkoa dan biotza.  
Martirioen penaz gaiñera,  
Jesukixton eriotza,  
Izu-garriera aizken juizioko  
tronpeta soiñuan otsa...
- 22  
Aren burutik sortutakoak  
aguro ziran zabaltzen,  
zar eta gazte pobre ta aberats  
guztiak zituzten artzen.  
Xenpelar-enak izan ezker  
ez ziran gaiztoak saltzen.  
Erri kutsuzko txinpart berotan  
zituelako azaltzen.
- 23  
Gure mintzoan lendikan ez da  
letra geiegirik izan,  
Irakurgaiak on da jartzea  
ez dakinak ikas dezan.  
Xenpelarrek au erakutsi zun  
«BERTSO BERRIEN» eskeintzan,  
Argatik EUSKAI ERRI osoan  
abegizkoa izan zan.
- 24  
Txiki txikitik ark jarritak  
asko ditut ikasirik
- bein-betirako ementxen dauzkat  
buru zapaian josirik.  
Nork agertu du ainbeste itz neurtu  
ain zentzumenez jantzirik,  
Neretzat ez du beste ifork utzi  
olako eredentzirik.
- 25  
Eskolarikan ikasi ez da  
alare danen maixua,  
orduko letradu askok baiño  
euskera geio jasua.  
Kantuen bidez alaitzen zitun  
etxea eta auzua,  
Atsegingarri zan guztientzat  
zuen izkera gozua.
- 26  
Orduan ez zan gaurko irrati  
edo ta ikusgaillurik,  
orduan ez zan izparringi ta  
gaur dan ainbat libururik.  
Bertsoak zitun erriak kuttun  
ez zan oraingo itxillurik,  
Berri emalea banitz ez nuke  
artuko beste ixpillurik.
- 27  
Ain arduratsu zuk jokatzear  
zer mesede izan degun!  
gure biziko gau illun asko  
biurtu diguzu egun.  
Burutapen bat dago nere gan  
zer egingo ote zendun?  
guk, zu, bezela erakusle bat  
aurretik izan ba zendun.
- 28  
Gizarte onek zure esanak  
Ain! benaz ditu artuak,  
zuk jarritako oiñarrietan  
gaur asko daude oituak.  
Puntzio edo pestak dirala  
mezetaraiño deituak,  
Bertsolariak danen biotzak  
jartzen ditu alaituak.
- 29  
Euskaltzaindiak Xenpelar oroiz  
sariketa du sortua,  
ori dan bidez zenbait alditan  
ni ere poza artua.  
Maite miña dun arantz zorrotza  
biotzen daukat sartua,

Illtzean jaunak nai dezala  
juatea bere gertua.

30

Ziñez eskatzen dana irixten dan  
siñalea orra garbi,  
zenbait alditan deitu zion ark!  
danon zeruko Amari,  
bitartekotza egin zezaion  
guztion aita Jaunari,  
Azken orduan bai aditure  
gure Xenpelar onari.

31

Fede santuko siniskai oiek  
ikuitzen zituanean,  
Ixpirtuan su gar bizia  
zebilkien mingaiñean.  
Milla zortzireun irurogeita  
bederatzi garrenean  
Abendun ill zan sortze garbiko  
Amabirjiñ egunean.

32

Jaunaren graziz ordaiña artzeko  
irabazien neurrian,  
esku utskin ez gaitzala agertu  
egillearen aurrian  
bete ditzagun emen gelditzen  
zaigun debora apurrian,  
Ortanten sailatu zan Xenpelar  
bere bizi laburrian.

33

Bukatzerako zerbait geiago  
itz bitan esate ezkeroz!  
gazte denboran neke azpian  
jardun zan otz eta berroz;  
Ainbeste paper txuri beztua  
bere bertsoaren lerroz,  
Eredugarri lan bikaiñ eta  
illezkorra egiña, geroz...

34

Pesta aundiak izan ditugu  
bera jaio zan errian,  
negu aurretik bukatu dira  
asiak udaberrian.  
Kaleai bere izena jarriz  
umill, ez arrokerian,  
Seme prestuak nola eskertu  
badakite ERRENTERIAN.



## Eskual - Herrira Pidaia, 1970 ian

AIREA: AURTEN ARNUA MERKE DA, LAU-BOST SOSETAN  
PINTA DA.

Mila bederatzi ehun iru-ogoi ta marra  
Pidaia luze batian aurtan naiz joan beharra  
Jinko jaunak emaiten badu neri behar den indarra  
Duda gabe ikusiren dut nere sort-leku xaharra.

Luzaiden sortua eta gazte denboran han azi  
Ogoi urte betetzian sort-herri maitea utzi  
Geroztikan Kalifornian nabil arat onat beti  
Nekaturik arduenian, eta plazer arras guti.

Nahi-gabe anitzetan iragan bizi modua  
Halarik ere oraino badut kontsolamendua  
Gaizkiago zombait ikusiz; Naiago neure gradua  
Gainera zeruan sartzeko dut esperantza osua.

Esperantza atxik dezagun bizi gireno mundian  
Harek gaitu kontsolatzen pena guzien erdian  
Baita ere oro argitzen nunnai behar ordian  
Aingeru bat badago beti, zerutik gure guardian.

Otoitz egin dezakogun aingeruño fidel horri  
Laguntza hark eman dezala gure behar ordueri  
Xantza onez gida gaitzala, orai goatzin pidaiairi  
Biziko guk oroitzapena izanen baitugu hori.

Ekainain ogoi-ta-bortza, partitzeko tenoria  
Los Angeles-en hartuko du franses airezko xoria  
Hau izanen da enetako esperientzia berria  
Airekotan sartzen naizela orantxe lehen aldia.

Orai arte dakiguna gure pidaiaian segida  
Amabi ordu ta erdiz arribatzen Paris-era  
Handik gero Baiona alde berriz airatuko gira  
Uztaila-ren lehen aireko, uste dugu Luzaide-ra.

Arnegui-tik jakina dut uste ez nuen berria  
Automobilez estaltzen dela karrika guzia  
Arras nekez dela handik Luzaide-rat pasatzia  
Mendi gainez hartu beharko haurrian kasi bidia.

Jendakia, adixkide, baita Luzaidar guziak  
Urrun danik bihaltzen tut oraiko konplimendiak  
Ez ahantzi egiteko guretzat otoiñ nobliak  
Zuen ikusteko ditugu, hartzen irrisku aundiak.

Aitzinago joan gabe orai emen gelditzen niz  
Naiz oraino badauket zueri erraiteko anitz  
Kalifornian egiazki mintzatzera libro bainiz  
Eskualdun sortu, eta azi, eta Eskualdun hilen niz.

CALIFORNIA-TIK, Juan Cruz Arrosagaray, 1970 eko, Martxo  
Kantu onen airea iru lerrokoa da. Hargatik lehen lerroko airea  
bietan egin behar da.

## «XENPELAR SARIA»

Aurtengo «Xenpelar Saria» onela baratzea erabaki du, ortarako  
Euskaltzaindiak aukeraturiko Epai-Buru edo Juraduak:

- Lenengo saria, 2.000 pezetakoa. Inozentio Olea.  
Bigarrena, 1.500 pezetakoa. Manuel Matxain.  
Irugarrena, 1.000 pezetakoa Mantxola.  
Laugarrena, 500 pezetakoa. Segundo Kalonge.

Aipamen ooregarria. Bertso jartzaile onak diran, Etxaluze ta  
Leteri, sariketa ontarako bialdu zituzten beren bertso ederrengatik.

## OHARRAK

Azken numeruan, berrogei t'amalka garrenean alegia, eta orri  
hontan bertan «ESPAÑA-EUROPA-EUSKAL ERRIA» izeneko idazlan  
bat argitaratu genuen, irakurgai ikingarria baitzan. Guk «ZERUKO  
ARGIA» asterotik gure orrietara ekarri genuen euskal napparrek  
leitu zezaten. Artikulo horren azpian hitz hauek jarri genituen:  
«ZERUKO ARGIA» euskal amasbosterotik ekarria». Baño «inpre-  
tako sorgiñeek» itz horiek kendu zizkiguten eta etziran ifun azaldu.

### BARKATU

#### Beste ohar bat

Datorren ilea, Uztaila da, Iruñeko Bestak, iakiña! Iruñeko fa-  
brikak, lantegiak, denda askok, lan eta afer askoko etxeak bere  
atseden egunak artzen dituzte. Hau dela-ta «Principe de Viana»  
ezta bere denbora, tenorean, azalduko Abuztuaren lehenengo egu-  
netan baizik Hontaz gañera datorren numerua ezta illabetekoa  
izango, bi illabetekoa agertuko zaigu; Uztaila eta Abuztuarena.

Izan ongi denak, eta Abuztu arte adiskideak!!



## BAIONAKO ASTEA

Organizazioak, Aste horretara joan gaitzen, dei  
egiten digu.

Aste hori, uztailaren 2-tik 8-ra izango da. Eta, egia  
esan, aurretik ikusita, merezi du joateak. Oso inter-  
resgarri presentatzen zaigu, bai gaiaren aldetik eta  
bai hizlariaren aldetik.

Igandeak erdibitzen duela, asteak bi zati ditu:  
lehenengoa, euskal kulturari buruzkoa; eta bigarrena,  
erlijioari eta euskal gizarteari buruzkoa. Zein baino  
zein interesgarriagoak.

Aste honetan guztiok parte artu genezake, bai  
elkarrizketan eta bai lanerako ekipoak sortuz. Hauze  
dugu hain zuzen astearen alderdi inportanteenetako  
bat. Bilerak (goiz eta arratsalde) Baionako MUSEE  
BASQUE-n (rue Marengo) izango ditugu. Gaiak, hauek  
dira:

KULTURA EGUNAK (2-3-4)

Irakaskintza (maila guztietan): — Andereño Errandonea  
— Andere Itzaina  
— Piarres Dokelar  
— Jakes Etxeberri  
— Patxi Altuna  
— Luis Mitxelena

Literatura: Teatroa: Piarres Laffitte  
Poesia: J. Haritschelhar

Historia: — Narbaitz  
— Aizpurua  
— Esparza

Ekonomia: Gurutz Ansola  
Ramuntxo Kanblong  
J.L. Davant

Igandea (5): — Goizean, Ipar aldea ezagutzeko ibilal-  
dia edo eskursioa. Iluntzean, ARGIA  
dantza-taldearen saioa.

ERLIJIOA-GIZARTE EGUNAK (6-7-8)

Fedea eta kultura.—Karlós Santamaria.  
Enkuestaren azterketa.—Enkuesta hau Ipar aldean  
egina da, apaizei, monjei, irakaskintzari eta Ekitza  
Katolikoari buruz.

Parte artzaileak:

SIADCO  
Xarriton  
Iraola  
Andere Louberia

Kristau dotrinaren batasun proposamendua.—Ardu-  
radunak egina.

—oOo—

Hortik kanpora, izango dira beste zenbait ikuski-  
zun eta eginkizun ere:

—Liburu eta Diskoen Azoka.

—«Ez dok amairu» taldearen eta hango kantari  
profesionalen saioa.

—Eta, beharbada, hango eta hemengo kantari be-  
rri eta ez-eguzen konkurtsoa. Ogeitik gora dira ho-  
rretarako izena emandakoak.

—oOo—

Hara joateko Organizazioak egiten digun deiari eran-  
tzun dezaiozun. Jatorki erantzun ere. Diru aitzakiarik  
ez dago: aste osoa (jan eta lo) mila bat peseta In-  
guran ibiliko delako. Hutsa!

Egun bat atzeratu gabe Organizazioari erantzun de-  
zaiozun. Lehenbailehen behar dute zure erantzuna,  
hara zoazenerako dena antolatuz bira dezazun.

Bidaliz zure izena zuzenbide honetara:

ZERUKO ARGIA  
(Baionako Astea)  
Oquendo, 22  
SAN SEBASTIAN

Han elkar ikusiko dugun esperantzarekin,

joan mari torrealday

# IKASI, MIKASI...

## SEIGARRENETAZ, BERRIZ...

Joshe Migel, gizon gazte eta erriko alkatea, leiotik begira dagoala, ikusten du nola mutiko kozkor batzuk, alorrean lotuta dagoan asto bateri arrika ari direla.

—¡Eee, mutikoak...!  
Mutiko biurriak, alkatean oi aditzen dutenean, alde egiten dute pilota jokura. Ara doae gure gizona ta, aietako bateri belarriatik elduta, esaten dio:

—¿Zergatik ari itzen astoari arrika?  
—Mielito asi da lendabizi.  
—Nik ez diat galdetzen nor asi dan lendabizi. ¿Zer egin dik asto orrek, ik berari arrik tiratzeko?

—Nik bi arri besterik ez dizkiot bota, ta gañera ez diot azertatu. Mielitok bi aldiz jo du. Manuelxok, ere, bai; bi edo iru aldiz jo du, ta bein belarritan...

Gaiztakerin ari diren mutikoai bezala, galde egiozute ama bateri:  
—¿Zergatik jazten duzu zure alabatxo ori, istarrak agirin dituela?  
—¿Orain neskato ta neskatz guztiak ola dabilteze! ¡Moda baita...!  
Galde egiozute senargai eta andregaiet:

—¿Nola zabilzate guztien aurrean, lepotik elduta eta musuka?  
—¡Ba...! ¡Elkar maite dugulako! ¿Bestiak bezala, ez dugu ibilli bear? Telebisioz, aditu izandu det, gai auetaz mintzo dela:  
—«Maitetasunen pekatutxoak»... (Pecaditos de amor...).

Kristauak geran ezker, MODA'k zer dion, edo geienak zer egiten duten galdetu bearrean; ¿elitzake arrazioezkoa izango Jainkoak zer dion azterkatzea oraingo oitura eta lizunkeriaz?

### JAINKOAN DAMUTASUNA

Biblia'n Jenesis, edo Asiera'n, irakurtzen dut:  
«Ta Jainkoak ikusi zun giza-gaiztakeria, lurrean, aundia zela, eta esan zuan: lur gañetik erazuko dut irazan duten gizona, eta gizonarekin abere eta egaztiak ere; ayek egiñaz DAMUTUA BAI NAIZ» (Jen, VI, 6-7).

Bein bakarrik arkitzen ditugu Eskritura Santuan itz zorrotz auek. Adan eta Eba, gure lendabiziko gurasoak, Jainkoan aginduari uko egin zutenian, utzi bear izandu zuten Atsegin Baratza, baño etzuten aditu: DAMU NAIZ ZUEK EGIÑIAZ.

Kain'ek bere anai Abel il zuenian, etzun esan Jainkoak DAMUTUTA ZEGOALA ain odolko arraza irazan zuelako.

Noe'ren seme gaizto batek, bere aita mozkortuta ikusita, parre eta burla egin zionian, Jainkoak gaitzetsi zun, baño etzun esan DAMUTUTA ZEGOALA ain gizon lotsagabeak egiñaz.

Bakar bakarrik, Bere irudia lizunkeriaz loitzen zuela ikusiaz, dio Jainkoak: DAMU NAIZ GIZONA EGIÑIAZ.

### BOST ERRI, KIXKALDUTA, URPERATUAK

Orain ITSASO ILLA (Mar Muerto) dagoan lekuan, ba ziren garaiez bost erri eder eta aundi. Baño ango gizonak eta emakumeak, ezin esan ditekenez lizunkeriaz leporaño sartuta bizi ziren. Noizpait bete zen Jainkoan asarre neurria, eta arri-labe izugarrizko batetik bezala, asi zen zerua sua botatzen. Gizonak eta emakumeak nai zuten iges egin, baño bere etxe, azinda eta zuten guztiakin, kixkalduta eta urtuta gelditu ziren.

Orain, an dago ITSASO ILLA, bere ur gazi eta nazkagarrien azpian bost erri aundi dituela, non ezin bizi den arrai txiki bat ere...

### MANE, TEZEL, FARES

«Baltasar, Kaldaitarren erregeak, mille maikideentzat apari ederra prestatu zuen. Erdi mozkor zegoala, bere aita Nabukodonosor'ek Jerusalemgo elizetik ebasi zitun urrezko ta zillarrezko ontziak ekartzeko agindu zun, aietik erregek, ta aren aundiki, emazte ta oaidet edateko. Ta ardoa edatean, beren gezurrezko jainkoak goratzen zituzten. Une artan, argimutillaren aurrean, giza-eskuren beatz batzuk azaldu ziren, errege-etxearen ormako kisuon zerbait idazten zutela. Au ikusita, erregeari arpegia aldatu zitzaion. Bereganatu zitun jauregiko jakintsu eta aztiak, eta iñok etzezakela azaldu zer esan nai zuten zirripi-zarrapa aiek ikustean, ekarriazi zun Daniel Igarlea.

—Zu, Baltasar —esan zion onek—, Jaunaren aurka jeiki zera; Aren etxeok ontziak ekarri dituzu, eta zuk, aundikiak eta neska-abeslariak aietatik ardoa edan duzute. ¿Zer esan nai duten itz oiek?

MANE = Jainkoak zure erreinuan egunak zenbatu ditu, ta bere anaya erabaki.

TEZEL = Aztagan (balanzan) aztatu zaitu, ta urri (exkax) arkitu.

FARES = Zure erreinua zatitua izango da, ta Madai'ri ta Persi'ri emana. ¡Gau artantxe Baltasar, Kaldaitarren errege, il zen, ta Dari, madaitarrak, aren erregetza artu zuan! (Dan. V, 1-35).

### ¡OR ZEOK PA KOXKA...! GURE ATTONAK ESANGO LUTEKEN BEZALA

a) Erri baten bizi zen gizon bat, lizunkerian leporaño sartuta. Bein esan omen zion apez jaunari:

—«Erljioa, gauze ederra dela ezin diteke ukatu, baño Eskritura Santuan arkitzen ditut zati batzuk, ain argi ez direnak...».

—«Bai —erantzun zion apezak—, zati batzuk ba dire errax ulertu ez ditezenak, baño Seigarren Aginduaz mintzo dela, argi eta garbi dio: ez dute Jainkoaren erreñurik iritxiko ez aragikoak, ez ezkontza-ausleak, ez emetiak, ezta sodomakerizaleak ere. (Efes. 1, VI, 9).

b) Chateaubriand, mundu guztian eskritore famatuak, zion itzaldi batean: jar dezagun eskua biotzaren gañean, eta esan dezagun: ¿ez giñuke errax eta pozik siñestutako gure erlijio santuak diaguna, garbitasunean bizi bagiñake?

¡«IKASI-MIKASI»n leizaleak! ¿Ala edo ola jaztea MODA'n dagoala, ala edo ola, jostaketetan eta elkartasunetan, geienak dabilzate...?

Gu, kristau geranok, aditu ditagun ongi, eta gorde biotzean San Paulo Apostoluen itz eder auek. «¿EZ AL DAKIZUTE, JAINKOAREN ETXE ZERATELA, TA JAINKOAREN ESPIRITUA ZUENGAN BIZI DELA? JAINKOAREN ETXEA LOITZEN DUANA, JAINKOAK ONDATU EGINGO DU; JAINKOAREN ETXE DONEA DA-TA». (Efes. 1, V, 16).

A. ASTIZ ARREGUI

# P I L O T A R I A K

Retegi berriz ere Txapeldun. Joan den Mayatzaren 31'ean ari izanak dira Retegi erasundarra ta Lajos ultzamarra buruz-buru Espaiñiako esku-huskako pilota Xapelgoaren Azken-Partidan. Retegik aurten ere berritu du bere Xapeldungoa, Lajos 22-12 garaiturik.

Pilotarien kondairan lenbiziko aldia da bi nafatar pilotari Xapelgoko Azken-Partidan elkarren kontra yokatzen dutela. Nork erran behar zuen orai dela amar urte hau gertatuko zenik? Iñork ez luke siñestsiko. Gertakizun honek Nafarroa goresten du.

Donostia'ko «Anoeta» izan da pilotari hoiaren arteko gudukaldiaren lekuko. Azken-Partida honek izan du arrakasta «Anoeta» leporaño bete baizen yarralki uts bat ere agertze etzela.

Retegi paxa gorriarekin eta Lajos urdiñarekin eta trabesak 100-70 ri erasundarraren alde eta hauek guztiak partida hasi aurretik. Ameda terdiak dira eta Retegik lenbiziko sakea eginik partidari asiera ematen zaio. Erasundarra gogor hasi zaigu eta berehala lau puntu bereganatzen ditu 4-0. Trabesak orai



200-100 ri bere alde. Gero Lajos'ek bere lenbizikoa eginen du bainan ondolik erasundarrak bertze bi bere alde 6-1. Ultzamarra ernatu da eta atakaldi ederra eginik partidari kolorea ematen dio. Halare Retegi beti aintzinean naiz ta Lajos urbiltzen zaion 8-9 eta geroago 11-13 ta 12-16. Trabesak beti gorriaren alde diru auserki ematen dutela, 200-60 ri azkenengo hortan. Retegi sasoñean dago eta falta dituen sei tantoak lerro-lerro eginik partida airez-aire irabazten du 22-12.

Partidak 58 minutu iraun du. Retegi'k saketik sei tanto bere alde eta falta bat. Lajos'ek saketik bi puntu irabaziak eta falta bat.

Lenbiziko amar tantoetan partidak izan zuen bizitasuna eta aski atakatua zen, bainan gero Retegi'k erakutsi zuen bere gaintasuna eta beti aurretik auzia bereganatu arte. Retegi berriz ere Txapeldun. Zorionak Juan Ignacio eta Yainkoak urte aunitzez kontserba zaitzala.

M. I.

## Aizkolariak

Gipuzkoa alde hortan beti bada aposturen bat, aizkolariak direla, arrijasotzaleak direla, idi-dema edo bertze zerbait, beti ere kasik igandero bada euskal-kirol norgehiagoka. Merexi du aipatzea orai berriki egin duten aizkora apostua.

Joan den Mayatzaren 17'an Donostiako zezen-plazan ari izanak dira Polipaso hernaniarra 44 urteko gizona ta Mindegia ezkurritarra 21 urteko mutil gaztea buruz-buru aizkorian zein-gehiagokan. Lan ikaragarria zuten, baktokak BERROGEI kana-erdiko onbor erdibitu beharrak biek batean hasi eta lan guzia zeñek lasterrago egin. Apirilaren 4'ean apostu hau bera jokatu zuten eta orduan Mindegia gaztea irabaztate gertatu bi minutuen abantailarekin, bainan oraikoan ezkurritarrari etzaizkio gauzak ongi joan.

Polipaso zaharra ikaragarriko lana egin ta ondoan auzia bereganatu du gaztea garaiturik. Jokoa hasi aurretik trabesak gaztearen alde uyu egiten zuten «Eun berrogeiri» eta «Eun ogeitamari» emanez. Lanean hasi orduko gazteak bentaja puska bat harturik beti aintzinean ogeitamabortz onborreraño. Yende guzia etsitua hernaniarrak zer eginik etzaukala gazteak onbor baten bentaja hartu baizion. Bañan zaharrrak etzuen amor eman nahi eta jo ta jo bururik goratu gabe, azkenean berdindu ta ogeitamaseigarren kana-erdikoa gazteak bano lehenago moztu. Jokoa itzulikatu zen, gaztea unatua eta indargabetua gibelka zoaien ta zaharra berriz azkar ta indartsu gero ta gehiago berrogeigarren onborra puskatu arte eta apostua irabazirik. Hemen lanaren gora-berak:

### POLIPASO renak

Bost kana-erdiko	11 m. ta 20 s.
Amar » »	23 m. ta 38 s.
Amabost » »	42 m. ta 42 s.
Ogei » »	61 m. ta 55 s.
Ogeitabost » »	75 m. ta 58 s.
Ogeitamar » »	91 m. ta 40 s.
Ogeitamabost » »	113 m. ta 3 s.
BERROGEI » »	2 ordu 12 m. ta 10 s.

### MINDEGIA renak

Bortz kana-erdiko	10 m. ta 49 s.
Amar » »	22 m. ta 45 s.
Amabost » »	41 m. ta 52 s.
Ogei » »	59 m.
Ogeitabost » »	73 m.
Ogeitamar » »	88 m. ta 28 s.
Ogeitamabost » »	110 m. ta 55 s.

Apostu ederra eta yendea ere kontent. Polipasok bere 44 urtekin erakutsi du bere ahalmen izugarria, berrogei kana-erdiko 2 ordu ta 12 minutu ebakitzeko birrikak eta auspo onak behar direla. Bai alajaña! Mindegia gazteak galdu zuen baiñan hunek ere bere balioa erakutsi zuen eta urrengoan irabazi dezake. Apostu honek ekarriko du ondorio.

ANZANARRI



## BERTSOLARIAK

Erran bezala Mayatzaren 17 an bertsolari besta eder bat ospatu ginuen Elizondoko Antxitoneko trinketean. Euskal-Herriko lau eskualdetatik bertsolari bana ari izanak dira. Mattin lapurditarra, Azpillaga bizkaitarra, Gorrotxategi gipuzkoarra, Lasarte naparra eta hoiaren artean gure herriko bertsolaria Klemente.

Yende aunitz bildu zen trinketean bainan aunitzez gehiago bildu izanen zen eguraldi eder batek lagundu bagindu. Aro txarra beti etsai. Bertsolariak beren doai miresgarria erakutsi ziguten eta yendea berriz loriaturik gure koblarren kantaldiekin. Erabili zituzten gaiak edo suyetak aski politak izan gintuen eta den denak gure artean gertatzen diren gauzetaz mintzo zirenak. «Aita-Semearrenak», «Nagusi-Maiterrarenak», «Neska-Mutillenenak», «Nekazari ta Pentso saltzalearenak», «Pobrea ta Aberatsenak», eta aunitz gehiago. Beñere ez bezalako kantaldia egin zaukuten eta eztugu iñor berexiko denak ongi aritu baiziren eta dakiten guzia erakutsi baizakuten. Mattin'en bertso yostakinak, Lasarte'ren bertso mamitsuak eta bi gazteen sasoya. Nik uste dut bi bertsolari gazte hoiek bizitasun aundia eman ziotela bertolari, «Aita-Semearrenak» auziari gatza ta piperra emanik ederkixo atera baizuten. Entzuleek esku-zarta ta txalo beroekin saritu zituen bertsolarien kantaldiak eta egun gogogarri hortaz denek oroitzapen goxo bat atxikiko dugu guren biotzetan. Zorionak bortz bertsolariet eta gure eskerrik beroenak entzule guzietari.

# ERRIZ - ERRI



## BAZTAN

### BESTAK

Bestak hasi zaizkigu eta lenbizikoak Iruritekoak. Salbatoreak beti izaten dute errekte eta aurten ere Irurite'ko herrian yende aunitz bildu da, Baztan'go gazteria, Malda-Errekakoa, Bidasakoa eta bai leku aunitzetakoa ere denak Irurite'n bilduak arratsalde goxo bat igarotzeko naikeriarekin etorriak. Bestak bake ta umore onarekin igaro dira.

Almadoztarrek ere beren herriko bestak ospatu dituzte. Lenago eta orai arte Sanpedrotan izaten zituzten bestak bainan orai aldatu dituzte Besta-Berri egunera.

Bestak errekte aundia izan du eta yende aunitz bildu da. Besta-Berri egunean aizkora apostua yokatu eta ari izanak dira, Latasa ta Astibia buruz-buru bakotzak seinan onbor kana-erdiko ta bertze seinan 45 ontzako moztu beharrak zituztela, biek batean hasi ta lan guzia zenek lasterrago egin. Apostu atakatu izandu zen eta azkenian Latasa sunbildarra irabaztala onbor erdi baten bentajarekin. Plazan naiko sofua gazteria ederki yostatu zelarik.

M. IZETA



## ARALAR'KO AIZEAK

«Aize sanoak emengo aizeak, e? Zuen aurpegira begiratzea besterik eztago, nolako osasun ona daukautzen ikusteko».

Makiña bat aldiz entzun izan ditugu orrelako itzak samigeldarrok.

Eta, Jainkoari eskerrak, geienetan ala izaten da zorionez.

Noizik bein ordea aize txarrak ere astintzen gaituzte. Ala nola aurtengo neguan eta oraiñarteko udaberrian. Bereziki txarrak izan ditugu, izan ere, aizeak eta eguraldiak, beste toki askotan bezela. Olako negu txarrik!

Osasunari buruz, beste orrenbeste esan dezakegu. Tarte txar bat izan dugu San Migel'en aurreko egun oietan: joan daneko ogei ta iru urte ontan emengo serbitzari izandu zan Bitoriana Gerezta arbazuar jator eta sendoa itzali dakigu lau bost ilabeteen buruan.

Aralar'ko aritz bat bezin bizkor zebillena, muiñetako min-bizi batek jo ta, operazio zail eta gogor bat alferrik jasan ondoren, beste mundura joan dakigu, gure oarkabeen esate baterako, Pizkunde igande goizean.

Ordua etorri zakion nunbait. Edota zerurako onduri zagon ta San Migel Goiaingeru Buruzagiak berarekin eraman zuen Zeruko Aitarengana.

Nik eztaikit zergatik, baño maite dugun edonor mundu ontatik joaten dakigunean, bere bide zituen itzalez eta akatsez atzendu ta bere birtuteak etortzen zaizkigu gogora.

Onelakoa zan gure Bitoriana: xalao, alaia, langillea, zintzoa, guzenea, euskaldun jatorra eta guzian gaiñetik Jainkozalea. Azken egunetan erakusi zigun batez ere nolakoa zan bere fedea. Bereak egin zula ta laixter mundu au utziko zula, igarri zion garbi. Alare etzuen beñere urduritasunik erakusi. Aitzitik, nare, lasai eta paketsu agertu zakigun azken atseraiño, batez ere elizakoak artu ezkerotzik. Fede bi ziaren indarra!

Ontaz gaiñera, Jaunaren Pizkunde igande goizean doi-doi eman zuen bere azken arnasa. Menturazko ala bearez ote? Gu, fededunontzako, Jainkoaren bide iker eziñak...!

Gizon edo emakume xaloak bere burua maitaazten baitu, San Migel'era maiz etortzen ziren geienak Bitoriana zifnez maite zutela, argiro ikusi zan Arbazu bere jaiote-

rrian egin zakion eortze (entierroan), eta batez ere emen, bere lan tokian, egin genition elizkizunetan. Euskalherri osotik inguratu zan jendea.

Pozik bazagozke, Bitoriana, Jainkoaren aurrean zauden ori!  
Zure famili, aide ta adixkideok etzaitugu aztutzen eta zure alde otoitz egiten dugu.

OROI eta OTOI zuk ere!

ARTXUETA'ko UNAYA



## LEITZA

Apirillaren 26-an Leizan, Maiatzaren 3-an Bergaran eta Maiatzaren 10-an Gernikan, Bertsolarien Bikote Sariketa egin da. Lau probintzietatik bikote bana:

Naparroatik: AROZAMENA eta MADARIAGA.

Guipuzkoatik: LAZCANO eta GORROTXATEGUI.

Bizkaiaatik: AZPILLAGA eta EMBEITA.

Lapurditik: MATTIN eta TXAMPUN.

Gai-jartzalea, Hernandorena Jauna. Epailleak, probintzi bakoitzetik bana. Epailleak beren maietan banaka jarriak ziran eta bertso bakoitza bukatzean, denen aurrean puntuazioa ematen zuten, numero bat agertuz.

Iru herrietako puntuazioa baturik, Gernikan egin zan bikote bakoitzaren saritza. Irabazle Guipuzkoako bikotea. Herri bakoitzeko irabazlea ere saritua izan zan.

Gernikan Leizako Ayuntamentuak, Naparroako bertsolarietan nagusitu zenari, Arozamenari sari bat eskeini zion. Bertan Leizako Alkate Jaunak zillarrezko Kopa eder bat eman zion Bizkaia bertsolari onenari, eta eginkizun onen arazoa azaldu zuan berak esanaz:

«ITZ BATZUEK BAKARRIK

Leitzatik nator, gaur GERNIKARRA, Bizkaia bertsolarien jator, langille ta euskaldun oni besarkada bat eman naiean. Esan bear det, gu, leitzarrek, zuen anaia bezela gerala; zergatik gure antziñeko gurasoak izan ziran Bizkaia Jauregui etxeokoren (Sres. de la Casa de Vizcaya) aideak edo parientiak.

Ala, Leitzako erriak bere esku-duan daramazkin aritz arbola, otsoa eta zortzi gurutzak dotoz, milla berreun eta ogeita zazpigarren urtean, BAEZAN, Andres egunean moroaren kontra, jokatu zuten eta irabazi zuten burrukadan eskerra edo oroigarri bezela.

Esan nai det, nola Bizkaia gizon nagusi arrek eskertu zituan leitzako mutill bikain eta trebe aiek emanaz; Aritz arbola indarraren irudia bezela; Otsoa irabazi zuten burrukadan irudi edo sari bezela, eta zortzi gurutzak San Andresen egunean gertatu zalako.

Orregatik, billera onetan, nik ere nai det eskertu nere erriaren izenean, Bizkaia bertsolarien jatorrena; baita ere biotzez eskerra agertu orain dala amabost egun gure erria gora jaso zuelako eta eskatu baita ere, gora dezala bere bertso goxo ta mamitsu arekin gure Euskalherria zuten eta garbi.

Orain ematen dioten sari eta besarkada onekin, Bizkaia bertsolarien guria besarkatu nai det eta izan dezila, aurrera ere, elkarrekin jokatuko degun irudia. Eskerrik asko.



## KUKUA

Kuku izeneko egazti ori ez dugu geiegi ezagutzen. Egazti arrotz bat da. Ejito aldean bizitzen omen da. Urtero leku berberara etortzen omen da umeek azitzera. Umeek txepetxari aziarazten omen dizkio. Umeek azitzerakoan, berak «kuku jo» besterik ez omen du egiten. «Kukuaz» ere badira esaera zaarrek. Ona bat edo bi: «Martxoaren ogei-ta-bostgarrenean «kukuak»

Erromako zubian du jotzen, egun ortan poltsean diru-dunari etzaio beñere faltatzen». «Kukuak kantatzean euri eta eguzki...» «Kuku, kuku, emazteek milla matrikulu...»

## LEEN SARIA

San Jose Langillearen egunean, Argiñeneko-bordako Migel eta Erroxaori eman zieten Iruñean «familli-izandakoen» leendabiziko saria. Oientzat izan da Napar guziko leendabiziko saria. Jaso duten saria 50.000 pezeta izan da. Zorionak berriari ematen dizkiegu eta aunitz urtez bizkor-bizkorrek egotea de-seiatzen diegu.

Biramonean beuren erretratua azaldu zen egunkarietan (periódico), bestiekin batera. Oso xarman-ki zeuden. I. OTSANDORENA



## LESAKA

### JAI ON, LESAKAR

«Uno de enero, dos de febrero, tres de marzo, cuatro de abril; cinco de mayo, seis de junio, SIETE DE JULIO: SAN FERMIN».

Udaberrian zurgaitzak loratu ta udazkenean zimeltzen diran bezelaxe; Usategiata aldetik goiz argia sortu ta Errenga mendialdean eguzki gorria iltzen dan bezela, gure buru gañetik pasaturik, alaxe dijoaz egunak. Ala, baita, oroi penak eta mundua. Onela goaz gizonok.

Uztailaren 7'an: san Fermin. Ona emen, nola, urte bat geigoz erriko besta aien atetan arkitzen geran lesakarrok. Bulla ta iskanbilla kaleetan. Pozezo argitasuna aurpegietan. Alaitasun ta irriparra ostatu ta sukaldeetan. Erriko bestak: ategin bat lan artean; egonaldi laburra gure eguneroko ibilbearretan; ordu apal bakan batzuek izerdi ta kezka artean. Noski, udako sasoi onetan, iñoiz baño egarriago zaigu egun labor okin alaitasun ta irriparra. Kaixo, ba, san Fermin jaiak!

Elizan amabi ezkill. Erriko-etxetik susko-ziri edo «altsafero» bat igo da, or goian lertuaz. Erriko bestak asten dira. Ta, beti bezela baño ordu ontan era berexi batez, Lesakako etxe guztien atek idekiak daudez, naiz gipuzkoar edo napar, euskaldun naiz eraldun guztientzat. Ta, batez ere, Lesakatik urruti arkitzen diran erriar aientzat. Erri-Amaren magaletik ioan ziran egun batean; bizi bearrak banatu omen ditu mundu zabalean: Frantziara, Ameriketara, Australiara... Gaur nai genduke danak berri alkartzea txoko ontan. «Sanfermiñak» bai-dira!!

Bai, jaunak: sanfermiñak. lan, ba, lasai; edan bizi-bizi. Alaitasun ta poza euki dezagun kupiderik gabe, alkarte ta sasoi ederrean. Alaitasuna, alkartea, poza..., ta nortasuna. Bai orixe: nortasuna. Ederaz: «personalidad». Ain larri dabil Lesakako erria azken aldi ontan gauz orreri buruz!! Lesaka, bere ikurrin edo banderakin «Laminaciones s.a.» fabrika baño ordu batzuz lehenogotik sortutakoa da, noski. Ez gaitzen lesakarrok biar menpetuak arkitu. Erne, ba, jaunak. Errien nortasuna zaitu. Erritarrak zuekin gaudez!

San Fermin: erriko bestak. Bestak ta alkartasun. Alkartasun ta poza. Poza ta pake, Pake ta nortasun.

Jai on!!

«Uno de enero, dos de febrero, tres de...»

ANTHON

«Ilidakoen Mixioa» erraten zaionaz, Astelen Sainduz, gure Mixio ederraren akitzea izan zen. Bere artan Aita Zubiaga-k agur egin zakun eta biotz-biotzeko oroi pen bat izan zuen erri untan aspaldixko urte oketan izan tugun bi anai apezentzat. Bata, D. Jabier zana, berrogei-ta-iru urtez gure erri ixill-ixillik ameika on egin zuenaz. Eta bertzia, gaur gure Artzai dugun D. Leandro Lazkoz-tzaz, BERROGEI-TA-AMEKA URTE LUZE gure ondoan, guretar bat egiñik, bizi denaz.

Aita Zubiaga-k erran zakun baita ere arront ongi abesten (kantatzen) zela Ziga-n. Erakusle on-onak izan dugula ezautzen zela. Izan ere, bi nai Lazkoz apez yaunek egunero ainbertze urtez ez dute alfer erakutsi.

1923-garren urtez Gazteiz-en izan zen Musika Batzar Aundi artan auxe bera aitortu zuen D. Mateo Mujika Urrestarazu Yaun Guztiz Agurgarriak, Iruña-n Apezpiku zalarik, Ziga-n entzun izan zituen kantu aunitzez oroiturik noski.

Mixio-oroitaz iduritxo eder bana eman zakuten. Ona emen gibelean zer erraten duen: «Maitasunean dagona, Yainkoagan dago eta Yainkoa arengan» (I. Yo, IV, 16) Gure Mixio-Oroiz. Ziga (Baztan). Mixiolari, Aita Zubiaga. 1970nggo. Garizume».

O.

tiurre bere kopia guziekin itzali zitzaigula urtebetea izan zan.

Lau bost egun aurretik, sukaldetan zegola izan zuen lehenbiziko deia. Bera konturatzen etzela, mintzoa moteldurik arapatu nuen. Buruko odol-kolpe arrastoren zuela iduri zuen. Eta bestalde etzuen minik senditzen.

Beti kopletan zebilen ta, edozeinek esango zuen azken orduaren deia balin ba zen, koplaka heldu zitzaiola heriotza re.

Etzela ba zelako horrekin eremana zi ginuen ohera; eta hortan joan zitzaigun, egun gutxiren buruan.

78 urte eta ilabete bat egin zituen lurrean. Luzeago den bizian sartua da.

URDIAN'go EUSKALDUN IZENAK

Urdiain-en euskaldun izen politak ba dira. Trebe izango zinake zeure buruz zenbatsu diren ateratzen? Aitziber lenengoa. Zenbat ote dira danak? Hor ikus dezakezu zure herriko jendea ezagutzen duzun.

Aitor, Aitziber, Amaya, Arantxa, Ederne, Idoia, Ignacio, Iratortze, Izaskun, Iziar, Javier.



Ziga-ko eliztarrak uri-erauntsipean elizetik ateratzen. Aurrean artean ikusten da 51 urte an egin dituen Apez Yaun D. Leandro Lazkoz.

## ZIGA MIXIO SAINDUAK

Gure erri untan birtze-sei urtetik birtze-sei urtera, zorizi-bede-razti egunez, Mixio Sainduak izaten tugu. Olaxen asparituk eza-gutzen dugu.

Aurten betetzen ziren sei ondarreko aldiz eman zireia. Erriak bazakien. Etzagon atzenduta. Esperoan zauden zigatarrak. Eta berexi ziren egunak: Garizumeko birtzgarren astea.

Ondarreko iru mixio Sainduak, 1952, 1958, 1964, eta aurtengo au, laurak, Aita Mixiolari berak emanak izen dire: Aita Zubiaga, jesutak. Berak erran zakun kontent elau zela gure erri. Gu kontentago ginauden bera berriz etorri zalakoz. Bere unitako izen bazen bezaia ezautzen dugu eta iduritzen zaigu guretarra dela.

Naiz-eta elurre, iñeztura, ortostia, aize otza eta zuri-erainisi aundiak izan, lenbiziko egunetik erri osoa etorri zen. Ziga-uk bakarrik ez. Bertze inguruko errietatik ere aunitz etorri ziren, batez ere arratsaldeko mintzaldietara. Baita urrutienetako bordetatik ere.

«Barkazioko mintzaldia» eta Kalbarioak izugarri ederrak eta biotzugarriak izan ziren. Guraso eta gazteak ere solasaldi berexiak dakarka izan zituzten. Aurrendako, berriz, Mixio bereixia eguerdian: berentzat Meza Saindu, itzaldi ta guzti.

Azken egunez, gure aurrek ikustekoak eta entzutekoak (aitzekoak) egon ziren. Eskuetan eta biotz gañian Erromako Aita Sainduaren bandera xuri-oriak zauzkitelarik, erriaren aintzinean bertso, elkar-solas, itzaldi eta kantu oso zoragarriak erran zituzten. Ez ginaun aituz aspertzen. ¡Besta egitan polita gure aurrena!

Una emen aur oen izenak:

Arantxa Gortari, Indarte-koa  
Erroxiarotxo Elizalde, Etxenike-koa  
Mari-Jose Zenoz, Soraburu-koa  
Joan Pedro Agerrebere, Iturralde-koa  
Asunzion Aizpuru, Etxezuri-koa  
Mari-Teresa Osakar, Sabatenea-koa  
Plorentzio Irigoyen, Kalaiñena-koa  
Martina Mendiberri, Garay-koa  
Joxe-Inazio Yubera, Iringo-koa.

¡Ongi, arront ongi, ia eziñ obeki egon ziñaten-da, zorionak!! Urte aunitzetako, zigatar aurrek!!!

Erriko aur guztiak bedeinkatzez akitu zen beñere atzenduko ez dugun besta eder-eder au.

«Ilidakoen Mixioa» erraten zaionaz, Astelen Sainduz, gure Mixio ederraren akitzea izan zen. Bere artan Aita Zubiaga-k agur egin zakun eta biotz-biotzeko oroi pen bat izan zuen erri untan aspaldixko urte oketan izan tugun bi anai apezentzat. Bata, D. Jabier zana, berrogei-ta-iru urtez gure erri ixill-ixillik ameika on egin zuenaz. Eta bertzia, gaur gure Artzai dugun D. Leandro Lazkoz-tzaz, BERROGEI-TA-AMEKA URTE LUZE gure ondoan, guretar bat egiñik, bizi denaz.

Aita Zubiaga-k erran zakun baita ere arront ongi abesten (kantatzen) zela Ziga-n. Erakusle on-onak izan dugula ezautzen zela. Izan ere, bi nai Lazkoz apez yaunek egunero ainbertze urtez ez dute alfer erakutsi.

1923-garren urtez Gazteiz-en izan zen Musika Batzar Aundi artan auxe bera aitortu zuen D. Mateo Mujika Urrestarazu Yaun Guztiz Agurgarriak, Iruña-n Apezpiku zalarik, Ziga-n entzun izan zituen kantu aunitzez oroiturik noski.

Mixio-oroitaz iduritxo eder bana eman zakuten. Ona emen gibelean zer erraten duen: «Maitasunean dagona, Yainkoagan dago eta Yainkoa arengan» (I. Yo, IV, 16) Gure Mixio-Oroiz. Ziga (Baztan). Mixiolari, Aita Zubiaga. 1970nggo. Garizume».

O.

# GEZURRE-TAN OTE?

Gizon bat bidegurutze batean arkitzen denean, beharrezkoa du, aurrera egingo badu, alde batetik edo bestetik aurrerako abiadura hartu beharra. Eta badaki hoietako bat hartzean konpromizu batean sartzen duela bere burua, baina gauzak bere abantaila izango bade, konpromisoak ere hartu beharra dago.

Huntaz, nere buruarekin izan dudana esperientzia bat agertuko dut. Euskeraren batasuna dala ta, bide bat hartu beharra nuen, eta Euskaltzaindiko sekretario bezala, Arantzazun errekomendatua hartu nuen, euskaltzain-buruak berak «normativo» deitu duena, zeren hola delarik lotsagarria litzake Euskaltzaindiko batek kontseilatzen duen «normativo»-ri ez jarraitzea. Hau da, ez bait da hain ongi «normativo» ez denari jarraitzea.

Hori dala ta, izan oituz nereak eta bi. Gutxi edo asko denok izan ditugu geureak, baina nik, guxienez, nere karguari zegokionari jarraiki lan egitearren. Beste batzuek araudiak nauksiaz jardun direlarik eta nik araudiak irten gabe, nere lepora jaso oituz zenbait San Benito, aipatzerik ere merezi ez oituenak. Idatzi beharra nuen agirien aurka ere ez guxi, zentzurik gabekoak gainera, erakunde bati zegokion oinharirik edo araudiak puskatu ez nuenez. Orain konturatzan naiz nere inguruan zelako otsoak nituen, bildots iduriz. Alajaina: Zeruko Argiak ere ez omen daki, bere «neutralitatean» (ikus 317-gn zeno., maiatzaren 24-koa: Zeruko Argia auzitan) zergatik utzi oituen zenoan idazleak bertan idazteari. Nerea ez badaki, ez daki asko bere buruaz. Bi jauni zerbitzea ez da posible, eta agertu oen bidegurutzean naukatu beharra du; eta, bestalde, jaun itxurazko bati (zeren seudonimoaren atzean batek ez bai daki jauna ala anderea gordetzen den ere) nere personaren aurka zerbitzu zion bezala, etzion zerbitzu nere alde irten zanari. Baina, neman bezala, bestean ere zergatik eztu hartzen jaun bati zerbitzea? Hau da gure arteko taltsia askoren egoera lotsagarria.

Baina gaurkoan beste exenplu batek nakar, eta honek ere beste guziakin ba du bere lotura.

Erakunde bati (Euskaltzaindia kasu honetan) eta nere buruari zintzoki jarraitzearen, lehen itxuraz adiskide nituen asko jarri zaizkit kontra, zeren haien zat adiskide nintzen beren usteetara probetxuzkoa nintzen artean. Baina nere morroitzak euskera eta Euskal-Herriaren alde jartzean ez nau behartzen inungo alderdi edo erakunde partikularrei zerbitzu beharrean, ez eta ere gizon soil bati, beinipein euskera kontuetan goi-mailako maixuren bat edo ez bada, eta orduan ere nere iritziak agertzeko kondizioan.

Baina noan zuzenago harira, edo hobeto esan hariagora. Ikusteko, batzuek, beren zerbitzuko itsuak ez direnak zelan tratatzen dituen, besteeri gezurti itxura eman nahiez. Eta puntu hau garbi lotu nahi nuke. Hau da, Kamaraka izenordezko batek, Alderdi izeneko aldizkari batean (256-257 zenbakiak, XXIV urtea), 5-garren orrialdean, eta hau gutxi balitz edo, orri hoiek korreoz bananduak izan dire lakaio itsu batzuen bidez. Neri dagokidan puntuan dio: «...vamos a dar algunas precisiones olvidadas en la relación publicada en Euskera 1968, págs. 293-294, bajo el título "Bodas de Oro de la Academia de la Lengua Vasca" y suscrito por su Secretario Sr. San Martín». Eta ondorean azaltzen ditu zenbait gauza. Baina azalpen hoiek ez datoz ez Primer Congreso de Estudios Vascos liburuan (eta biltzar horietatik sortu zen Euskaltzaindia) eta ez Euskera-n eta ez Euskaltzaindiaren agirietan ez dira agertzen. Eta, ez dut ukatzen berak diona hala izango zela. Baina ahaztu egin zaizkidala, era horretan esateak gezur itxur hartzen du, eta gezur itxura hartzen duenez, irakurleai aditzera eman nahi diot itxuraz gauzak aldatzeak zein aldetatik etorri ditezkeen berak kontu izateko.

Euskaltzaindia sortu zenean oraindik jaiotzeke nintzen, eta Euskaltzaindiaren urre-esteietan, bertako idazkaria nintzanez, bidezkoena nuen eskatu zidaten historia laburra Euskaltzaindia beraren agiri ofizialeetatik egitea, eta ez hor zehar banandurik ibili zitezkeen paper zaharretatik. Uste dut argi dagoela.

Baina, hori gutxi balitz ere, Cosme Elgezabal-en izena bi aldiz aipatzen nuen Euskera XIII (1968) aldizkariako lan horren 294-gn. orrialdean, sorreraren meriturik handienak berari emanez, eta Kamaraka (ez dakit jauna ala anderea den ere; behar bada no den to, egiazko izena agertzeko baino kobardeagoa denez) dalakoarena bakarrik irakurtzen duenak pentsatuko luke izen hori isildu dudala. Elgezabal jauna bera baino lehenago Euskaltzaindia, edo Euskeraren Akademia (zeren izena ez zen jarri 1919-ra arte) sortzearen ideia eman zuten Aristides Artiñano edo Adolfo Urkixo-ren ideei politikoak ere ez dituz jartzen sorrerako agiriak. Baina, ba ahal zan hortarako premiarik? Eta horiek ahal dira nere «...precisiones olvidadas en la relación...»? Baina, zer da hau? Gezurtizat hartu nahi?

Holako inkisitoreei jaramon egiten diotenak, bera bezalako ganoragabekoak izanen dira.

Hemendik ikusi, euskeraren batasunari buruzko arrazoiak zelakoak izango diren lan horretan. Honela idatziko ote digute gure historia?

JUAN SAN MARTIN

# NAFARROAKO IZEN ZAHARRAK

Pozik ikusi ditut Nafarroako izen zaharren zerrendak PRINCIPE DE VIANA euskerazkoan, 48-gn. zenbakian (otsaila, 1970) Amabirjina izenak eta 49-garrenean (martxoa, 1970) Leyre-koak. Erdi-Arokoak hauek.

Merezi du gure izen zaharrez baliatzea, gure herriak bere jatorrasuneira irauten eragiteko bidea bait da. Amabirjina izenetan, Estibalitz, Nafarroako Erdi-Aroan maiz agertzen den izena dugu eta ongi litzaziguke orain ere ditugunak erabiltea. Baina, baita ere, ongi litzake lehenagoko izen zaharrak berriztatzea, zeren bestela geron aurregia ere ez dugu ezagutzen, eta hemendik sortzen zaizkigu zombait oker, Unai izenarekin bezala, nun eta Iruñian bertan ontzat har nahi ez, nafar izen jatorra izanik ere, Nafarroako Gran Priorado de la Orden de San Juan de Jerusalem-en XII eta XIII-garren mendeetan argi asko agertzen zaigunez.

Aipatzen ditudan izen zerrenda hoiek pozturik eta bultzaturik, beste izen batzuek gehitu nahi nituzke **Notas lingüísticas a «Colección diplomática de Irache»**-tik hartuak (Ikus, **Fontes Linguae Vasconum**, I, 1/59 orr., 1969). Lan hau L. Mitxelena argitaratua da eta bertatik jatorrenetarik batzuek bakarrik hartu ditut, batzuek euskerazko jatorrizkoak eta beste batzuek Nafarroan antzina sustraituak. Hautapen hoiek jatorrasunaren aldetik eta eufoniaren aldetik eginak dire eta argibide bezala doaz, zeren gehiagoren berri eta xehetasunez jakin nahi dituenak aipatutako lan hortan aurkituko ditu.

Hemen, hautatutako izen bakoitza, bere ondorean agirian arkitzen den urtea ere emanen dugu, denak oraingo euskerazko ortografian emanak eta ondorean, parentesis artean lehengo forma zaharrez.

## GIZONAK

Izenak	Urteak
Amuruza (Amurussa)	1636
Anso (Anso)	1168
Artzaia (Artzaia)	1211
Azeari (Azeari)	1289
Belza, Beltza (Belça)	1212
Beltxo, dimin. Belza (Belcho)	1217
Domiku (Domicu)	1233
Eneko (Eneco)	1219
Gaisko (Gaisco)	1168
Gorri (a) (Gorri, a)	1273
Gurutze, Guruze (Guruce)	1217
Jakube, Jakueiz (Jacube, Jacueyc)	1274
Jaunzuria (Jaunçuria)	1197-1250
Otxando (Ochando)	1230
Sanduru (Sanduru)	1322
Semengo, dimin. Semeno (Semenco)	1158
Semeno (Semeno)	1168
Unaia (Unaia)	1168

Zuria (çuria) 1213  
Zuriko, dimin. Zuria (çurico) 1205

## ANDEREAK

Izenak	Urteak
Anderazu (Anderazu)	1222
Anderezu (Andereçu)	1222
Andrezuria (Andreçuria)	1190
Andre Oneka (Andre Oneca)	1174
Apala (Apala)	1196
Auria (Auria)	
Betisa (Betisa)	1276
Dolza (Dolza)	1197
Domeka (Domeca)	1196
Dota (Dota)	1209
Maria (Maria)	



Urraka (Urraca) 1283  
Usoa (Ussoa) s. XII

JESUS MARIA IRIONDO

# BATZUK DIOTENA

"Gaurko egun oketan norbait lar-dieratzea gauz bildurgarria da. Ez du makur dabillena edozeñek zentzateko. Ta biurri bat zuzentzera ausartzen dena, ederrak entzuteko dago non edo non gizaioa.

Gaur, onerako bakarrik behar da baimena: txarrerako iririk dauzkagu ate guziak. Onerako baimena, bai: ez dugu, bada, nai dugun tokian ona egiten ahal: ez bagailuzte nonbait onartzen, gu an ezin ari olean.

Gaitzerako erretasunak, zabal zabali: eskubide guziak beretzat artu ditu txarkeriak. Gaizkie ta txarkerie ontzat saltzen dazku munduak; ona, zoritxar ikeragarri bat balitz bezala, zokoratuz.

Onetik igeska gabiltz: gaitzean leporaño sartuak gaude: ta onaren alde norbaitek erran lezaiguen egia etzaigu goxo.

Len ez zen ola: gutartean onartuago ginuen ona: gaxtakeriari ta txarkeriari bildur getiago genion. ta beregandik iges egiten ginuen, bide ona erakusten zigutenei begiramen eta itzal aundi bat ekarriz. Erakusle ok ziotena gure onetan zela bage-nekigun. Lotzen ginduzten, gure onagatik, legeari: naiz, aldika behar baño geixago lotzen ginduzten ere, legearen itxuren, ta bere izenean be-

zala, berek artzen zituzten erabaki ez ain egokiak.

Erakusle on ok, aspertu gabe lan egiten zuten gure alde, maite ziguten ta. Baginoazin ek erakutsiko bidetik, beharbada zenbait aldiz aski sasiratzen baginen ere, bide ona gerroxagoko utziz: onetik gaitzera makurtzeko erretasuna beti izen baitu gizonak (andreak ere!).

Ala ere, sasiratzeak sasirate baziren ere, oraiko ausardi makur ta lotsagabetasunik etzagon gutartean, olean ibiltzeari leialtasun getiago geniolakoz geienok.

Aurra zenetik bat, oitzen zen borta egitera bere buruari. Ala erakusten zutaion ere, etxean, elizen, eskolan ta edozer leku serioetan.

Orrela irauten zuten gutartean oitura onek: orrela ikusten gintuen nonnai gizon zintzoak ta emazteki garbi ta leialak gure erri oketan. Gaur daramagun bidean iarrakiz, ez dezakegu, inolaz ere, gure errietan ona berritzea ta indartzea ikusi".

Leitu duzun au, BATZUK DIOTENA da. Dioten ok nor diren, ez datuz nik erran beharrik. Adin bateratue bazara seurik, nork daki ez ote zaitugun zu ere oketatik bat? Ni ere ez ote naizen, nork daki? Zenbait aldiz, su iltzea bertzen eskuz doanean, lengo onak kantatzeakin dena eginik daukegulekoan pozik gelditzen gara.

Lengo ona ain ongi artu ginuen ok, on au guri eman zakutenek gure alde egin zuten lanaren lautatik bat ere egin al dugu gure ondoeki ematen?

Oitura onak galtzen ari badire gure errietan, artu gintuenok eman ez ditugulakotz galduak izatea baditeke.

Gu, bide onetik sasitartratzen ginen, berriz sasitarretatik bide oneratzeko: oraikoak ere, gu bezala, grine txarrak sasira daramazki: baina, dei egilerik baldin badute, dei orri, guk erantzun geniola diogun bezal bezala, erantzunen diote, ta ogeietik emeretzitan sasitik bide onera aterako dire. Saia gaitzen ta ikus? Or zeok, bada, lana!!!

ARITZ

